

Erref. kodea: LAF-323-168

Izenburua: Egile ezezagunen eliz hitzaldia eta

otoitzak: Meza jarraitzeko otoitzak...

P. Blaise

ESPERANTZA SAINDUAZ.

Quaerite primum regnum Dei et omnia
adjicientur vobis. Matt. 6,33.
Bilha lehenik Jainkoaren erresuma, eta gaine
rateko gauzak izanen ditutzue nasai.

Giristino maiteak,

Gizonaren bihotza lurraren gainean deusek
ere ez du hala azkartzen, deusek ere hanbat ez-
titasunez bethetzen, nola esperantza sailduak.
Ohakotik eta hobiraino esperantza saildua bethi
aldean dohako.

Bainan berthute hori ez da gure baitharik
atheratzen; sinestea bezala zerutik da jausten
gure baithara. Eta esperantza sailduak, zer dau-
ku hitzemaiten? Lehenik sekulako zoriona bertze
munduan, eta lurrean behar dugun bizitzeko guzia.
Horra esperantza sailduari esker zer dugun igu-
rikitzeko.

I

Aditu duzue Jainkoaren hitza. Bilha lehe-
nik Jainkoaren erresuma. Gure esperantza finka-
tzen da Jainkoak berak eginikako agintzen gai-
nean. Eta badakizue g. m. Jainkoak zer daukun
hitzemaiten bere erresumaz mintzo delarik? Bora
dela giristinoek iguriki behar duten saria.
Gen. 15, 1.

Ba g. m. Jainkoa zeruetako erresumaz min-

tzo delarik edo oraino bizien lurraz, gozamen osoaz aiphu duenean edo gure lehia guzien asetzeaz hitzemaiten dauku phartalier eginen gaituela bere zorion bethierekoan. Bainan hortarakotz zer dauku galdatzen? adi zazue beraren ahotik. Dohatsu gogoz pobre direnak! Dohatsu bihotzez eztiak! Dohatsu baketiar eta karitatez betheak! Dohatsu bihotzez garbiak! Dohatsu zuzenbidearen gatik jazargoak pairatzen dituztenak! Ahanzten othe ditu bekhatoros dohakabeak? ez segur.

Jenderik galduenak urrikitan sartzen direa? bekhatoreak chede hobetara itzulzen direa? Jainkoak orduan barkhatzen diozkate beren bekhatu guziak, ahanzten ditu heien itsuskeriak. Ps. 50, 13. Eta ez bakharririk diote hitzemaiten bekhatuen barkhamendua, bainan oraino ditu bere agintzak batzu eta bertzeri miletan errepikatzen eta finkatzen zin eginez, Hebr. 6, II, 3. Jainkoak zin egiten du bere burua berme ezarriz, egiazki biziz Khanbiatzen, egiazki haren ganat itzulzen den bekhatorea, salbatuko dela. Eta graziako estatuan buruaino iraun dezan, Jainkoa laguntza guzien emaitera haletan zaio lehiatzen, ez baitu laguntza hoik gabe sekulan utziko, zinez eta leialki galdatzen badizka, erran nahi baita, laguntza holec baliatzeko chedetun balinbada.

Eta badakizue g. m. Jainkoa bethi zinez da mintzatzen. Jainkoa ez da aldaatzen behin erran duen hartarik. Egin duen ongi az ez du sekulan dolurik. Gizona badabila norat iguzki harat buruzki. Jainkoa sekulan. Jainkoa egia bera da. Jainkoa neurrigabeki botheretsu da. Jainkoak hitzemaiten duena atchikitzen du. Ez othe da gauza guzien Egilea eta Nausi oroz gainekoa?

Hitz bat erraiten du, eta zeru-lurrak ezdeusetarik atheratzen ditu. Zerua bere iguzki,

izar eta bertze argi ederrekin; lurra bere mendi, oihan, zelhai eta fruitu suerte guziekin.

Jainkoa neurrigabeki ona da. Nahi du erran dezogun- Gure Aita- Aita deithuz eginen diogu atsegirik handiena. Othe da aitarik Jainkoa bezain Aita denik? Nemo tam Pater ut Deus. Eta aita batek ahantz othe ditzazke bere haurrak? Galduak ginen guziak; eta Jainkoak ez dauku igorri bere Seme bakharra gure salbatzera?

Jainkoak ez gaitu sekulan bazterrera utziko. Bainan Jainkoaren ganik guzien igurikitze se-gurtamena balinbadugu, guk emanen othe diogu bethi galdatzen daukun guzia? Ez othe da beldur izaitzeko Jainkoari huts egin dezogun gure aldetik? Hitzemaiten dauku Jainkoak bere zeruko erresuma, dudarik gabe, bainan gure aldetik zerbait eginen dugulakoan, erran nahi baita, haren graziari jarraikiz, manamenduak beiratuko ditugulakoan.

Zorigaitzez Jainkoaren graziari ihardok dezokegu. Hain gare ahulak, jitez gaizkirat ekharriak, Frangotan ere hain gare gaistoak, ihardokitzen ere baitiogu. Horra zertako ikhara saindu batean bizi behar garen bethi. Ez dakigu chuchen bizi othe garen Jainkoaren amodioan ala herragoan. Ecc. 9, I. Ez dakigu othe goazen zerurat ala ifernurat. Gogor eta fermu garela uste dugun orduan, nork daki ez othe garen erortzeko hirrisku minean?

Bainan gure indar hutsekin ez badezakegu merezi ez zeruko erresuma, ez Jainkoaren grazia, bada norbait bat eta bertzea merezitu dauzkuna. Jainkoaren Seme bakharra ez othe da gizon egin gure salbatzeko; ez othe da hil merezi ez ginitzazkeen grazien ardiesteko? ez othe da igan zerurat egun batez gure errezebitzeko?

Ba g.m. Jesu-Kristok utzi ditu bere merezimendu guziak gure eskuko, gure egin ditu. Eta Jesu-Kristoren merezimendu hoik ez othe dire aski baino gehiago grazia suerte guzien ardiesteko? Wori esker dugu, batzuek graziazko estatuaren oso atchikitzeke botherea? bertzek biziz khabiatzeko grazia? guziek azken hatseraino Jainkoaren amodican irauteko grazia? Jesu-Kristori esker, ez dea hala? Grazia hoieri ez badiotegu ihardokitzen bekhatutik atheratzen gaituztelarik, edo bekhatutik urruntzen, edo oraino ongirat sustatzen, nahi bezain ahulak izan gaiten sortzez, ez othe da segur barkhamendua ardiesten daukute-la, saindutzeko bidean ezartzen gaituztela, salbamendua seguratzten daukute-la?

Ez uste izan g.m. justuek bakharrrik behar dutela izan Jainkoaren baithan holako esperantza handi eta azkarra? bekhatoresek orobat izan behar dute, balira ere tzarrenak, eta bekhatuan gogortuenak. Hortarakotz zer behar dute? urrikia izan eta hartu bekhatuaren uzteko chede egiazkoa. Ez dio Jainkoak, ez dut segur nahi bekhatorea gal dadin, bainan bai dituz dadin graziazko estatura, eta bizi dadin; garbi ditzan bekhatuaren thonak, eta has dadin ongiaren egiten. Orduan bekhatore-saren arima balitz ere khederra bezain belza, ezarriko nuke elhurra bezain churi; balitz ere lurpeko harra bezain gorri ezarriko nuke iguzkia bezain argi; balitz ere lohiz gaineraino zikhindua, ezarriko nuke ithurriko ura bezain garbi.

II

Bainan giristinoak, Jainkoaren ganik ez dituz bakharrrik iguriki behar bertze munduko ontasunak, graziazko laguntzak, behar ditu oraino

iguriki mundu huntako gauzak, eta behar-orduetako laguntzak. Hori dauku aditzerat emaiten, dionean: gainerateko gauzak izanen ditutzue nasai. Et omnia adjicientur vobis. Hemen bertze gauzetan bezala, Jainkoak nahi du haren baithan ezar dezagun gure fidantzia, gure esperantza osoa.

Adi zazue nola zaukun mintzo: Jainko behar da izan hola mintzatzeko. Erraiten dauku profeta baten ahoz: Eman zaitetze osoki Jainkoaren eskuetan eta berak haziko zaituztete. Ps. 54, 23. Ez izan griñarik, dio bere Semearen ahoz, nun hatzemanen duzuen bizitzeko hazkurria, eta soineko bat zuen gorphutzen estalzeko. Matt. 6, 25. Biziak ez othe du balio hazkurriak baino gehiago, eta soinekoak baino gehiago gorphutzak? Eta bat eman dautzuenak, uzten ahal zaituzte bertzea ere eman gabe?

Eta gure esperantzaren azkartzeko eta beharrez phizteko, dio aitzina: Beha zeruko hegastineri? deusik eraiten dute? deusik uztatzen edo bilzen dute selharuetarat? deusero. Zuen Aita zeruetan denak bakharrrik hazten ditu. Zenbat gehiago ez zuek ez zaituzte haziko? ez zarezte haren Probidentzia bereziaren haurrak?

Beha orobat landetako lilieri? nork ditu hola handi-arazten? nork ditu hoin ederki aphaintzen? Berek ez dute hortarakotz lanik egiten, ez eta ere iruten. Eta aithortzen dautzuet, Zalomon erregea bera bere urgulu eta ohore guzien ordian behinere ez da aphaindu lili hoietarik bat bera bezain ederki?

Eta Jainkoak hartzen badu hoinbertze artha landetako liliez, egun ba eta bihar ez direnez, zer ez du eginen zuen gatik, sineste aphurreko gizonak? Ez beraz bururik hauts paganook eta sineste gaboko jendeak bezala holako griñetan.

Zuen Aita zerukoak badakizka zuen behar-ordu guziak. Neurrigabeki ona delakotz ez zaituzte utziko deuseren eskasean. Bilha zazue lehenik Jainkoaren erresuma eta harateko zuzenbidea, gainerateko gauzak izanen ditutzue populu.

Bizkitatzean, g.m. ez uste izan hitz hoietaz Jainkoak deitzen gaituela bi eskuak sakelan edo alfer egoitera. Ez, ez; Jainkoaren laguntza ardietsi behar da ongi bermatuz merezitzera. Deusik egiten ez duenak, ez du izanen deusere. Lanik gabeko saririk ez da.

Oroz gainetik, ez ofentsa Jainkoa. Bekhatuaz ez jar Jainkoaren etsaigoan. Gero loth zaitzte zinez lanari; onets-azue Jainkoak bakocharri eman dautzuen bizipidea. Balia zaitzte zuen buruaz eta zuen eskuez; ez ditutzue izan alfer atchikitzeok. Jainkoak eman onez zerbitza zaitzete zuhurki eta zuzenki.

Baduzue bizitzekoa baino gehiago? soberakin hori ez chahu nola-nahi. Gainerateko horrekin lagun zaitzue beharretan direnak, eginzkitzue obra onak. Jainkoak ere orduan ez dautzue huts eginen. Doi-doi bizitzekoa duenak, ezar beza bere fidahtzia guzia Jainkoaren baithan. Adu duzue behinere Jainkoak baztertu duela haren baithan sailduki eta haur baten pare fidatu dena? Sekulan, dio Dabid erregeak, sekulan ez dut ikhusi Jainkoak bazterrerat utzi duela jende zuzena, eta jende zuzenaren haurrak beren ogiaren eskatzera borchatuak izan direla.

Sainduen bizia hor da hitz hoiien lekhuko. Jainkoak igortzen dio bati ogi erdi bat egun guziez bele baten mokoan. Bertze baten ganat igortzen du aingeru bat zaretto bat eskuan jatekoz bethea. Bertze zenbaiti ogia emendatzen zaiote

eskuetan. Eta azkenekotz, bere molsako dirua amoinetan bethi emendatuz doako bertze bati.

Horra zer den gerthatu iragan mendetan. Jainkoaren baithan zuten esperantzia handiak, horra zer dioten merezitu anhitz saildueri. Ez Jainkoak ez dauku sekulan huts eginen; hitzemaiten duenaren atchikitzeok neurrigabeki zuzena da alde batetik, eta bertzetik neurrigabeki botheretsua bethetzeko. Ez gaitu sekulan tronpatuko; egia bera da; ez eta sekulan bazterrerat utziko, neurrigabeki ona baita.

Beraz g.m. zer nahi egin dezazuen, zer nahi hi paira, zer nahi gutizia, ezar-azue zuen esperantzia guzia Jainkoaren baithan. Mundutarrak fida beite beren buruetan, munduko agintzetan; zuek orhoit zaitzte Jainkoak laguntzen ez bagaitu gabezia gorria dukegula lurrean eta sekulako beharrezia bertze munduan. Ikhusiko ditutzue anhitz beren abilezian fidatzen, bertze anhitz beren ontasunetan khondatzen, batzu beren osagarri onean pausatzen. Hoik guziak izan beite zuentzat ezdeskeria batzuen pareko. Badakizue aphur baten buruan, aberastasin, chore, atsegin eta gaitz guziak iraganen dire guretzat. Munduak enganatzen gaitu; Jainkoak egiazki sarizatzen. Eta gero, arranguratuko zinaizkete Jainkoak eman dautzuen bizipideaz?

Bertzalde, g.m. guziak, nor nahi izan gaiten, aberats ala pobre, handi ala ttipi, nausi ala sehi, guziak ez othe gaitu bathaioak errege batzu egin? Ez naski laster suntsituko den erresumako errege, bainan bai akhabatzerik izanen ez duen erresumako premu.

Behere huntan anhitz gaitzek hersten gaituzte alde guzietarik. Izenikan ere ontasuna

frango sekulan ez gare osoki aseak. Bainan kont-
sola gaiten; ezen diot berriz ere, akhabatzerik
ez duen erresumak igurikitzen gaitu hobiz bertze
aldean. Eta erresuma hartan zer dugu izanen? be-
thiereko bizitzea, pare gabeko ohorea, neurriga-
beko zoriona, hitz batez, on suerte guzien nasai-
zia eta bethetasuna.

Eta gero ez ginuke aski bihotz izanen gure
buruen aphur bat bortchatzeko? ez ginitazke aphur
bat bermatuko gure baithako jaidura makhurren
zaphatzera? eta harrapaka lothuko ginitazke lur-
reko ontasan ezdeuseri?

Bihotz puska bat g.m. Bilha lehenik Jain-
koaren erresuma eta harateko zuzenbidea; erran
nahi da, berma zaitezte Jainkoaren eta Elizaren
manamenduen leialki beiratzera, berma bakotchak
bere estatuko eginbideen bethetzera. Ez arrangura
Jainkoak igorri gaitzez, aitzitik jasan gogo onez
mundu huntako atsegabeak. Ginerateko gauzak iza-
nen ditutzue nasai; erran nahi da, izanen duzue
bizitzeko behar duzuen hazkurria, gorphutzaren
estalzeko behar duzuen jauntzia, zuen buruen ge-
rizatzeko behar duzuen atherbea; zer nahi zinu-
kete gehiago?

S. Heza jarraitzeko otoitzak

6.11.2019



Aitoren eta Semearen eta Izpiritu-Sainduaren irenagar Halabiz.

Populu Girichtinoa humat bildu izan gare
Igande egun saindu huntan Jainkoaren adoratzeko
egin darotzigu ongiez eskernen emaitako eta
dituzkegun guzietan, gure buruen hari kontsekratzeko,
eranan duzue beraz enekin batean bihotz oner:

" Ene Jainkoa adoratzan zaitugu humillabunik handiena

"ekin, eragutzen zaitugularik ibusten ditugun ala ez dituz

"gun gausa guzian Egile, Jabe eta Jaun Soberanozat:

" Eskeriak daukituzgu zures ontasun izari gabekoan

"egin deraiakutuzun, grazia guzientzat eta bereziki iragan

"aste huntan, egin deraiakutzumenzat.

" Eskaintzen daukituzgu gure arimak, gure gorputzak

"o. tasunak eta aste huntan, egunen, eranan gogoan

"erabiliko eta ^{dituzgunak} jaso teko izan dituzkegun guzietak.

E- baititake Jainkoaren begietan agradagarri izan
egiarko Fedea gabe, erakuts deragun hemen goraki
gure sinhestea erraiten dugularik Apostoluen
Simbola zointan aurkitzen baitire laburki gure
Erlisioetako egiak.

" Sinhesten dute Jainko Aita bothere guzira duena baithan
zenaren eta huraen kreatorailean eta Jesu-Khristo haren
Seme baxhar gure Jauna baithan, zoin kontsebitu
baitzen Izpiritu Sainduaren berthutez, sortu zen Maria
Birjina ganik, paratu zuen Ponzio Pilatusen manaren
arrian, kruzifikatu zuten, hiltzen eta ebortzi zuten
jantsi zen ifermetarat; hirurgaren egunean jeiki zen
burrik hiler artetik, iragan zen zerratarat, nun jarria
baitago Jainko Aita bothere guzira duenaren eskumean

handik ethoriko da bixien eta hilen jufatzean.
Sinhesten dut Espiritu Saindua baithan, Eliza Katholiko
Sainduan, Sainduen partahertasmear, haragiaren phiztean
bethi iranen duen bizitzean. Halabiz.

Federko akta.

Ene Jainkoa sinhesten ditut zinez eta ene bihotz
guziaren Eliza Katholiko, Apostoliko eta Erromanoak sinhesten
eta irakasten dituen gauza guztiak, zeren zut egia bera
zarenak irakatsi baitiozkabazu.

Ez da aski sinhestea behar dire oraino begiratu
salbatzekotz Jainkoaren eta Eliza Ama Sainduaren
manamenduak. Erranen ditut zue enekin batean

- | | |
|----------------------------------|----------------------------------|
| 1° Jainko bat adora zazu | 2° Jurramentunik zut ez duzun |
| Halaber maitha osoki | Ez zirik egimen banotki |
| 3° Jgandean begira zatezu | 4° Aita eta Ama ohora zatezu |
| Janna ere zerbitza deboki | Bixi zaitzeren lizeki |
| 5° Aher obrak hilen ez duzun | 6° Pallardizorik egimen ez duzun |
| Ez borondater gaichtoki | Obrak ez gogoz likiskiki |
| 7° Bertzerena ebatisiko ez duzun | 8° Sekhukotasunik ez duzun |
| Ez atchikiko injustuki | Ez hitz erranen faltsoki |
| 9° Bertzeren esposik ez duzun | 10° Gutiziarik iranen ez duzun |
| Desiratuko lirunki | Bertzeren onaren gairaki. |

Elizaren Manamenduak.

- | | |
|----------------------------------|------------------------------------|
| 1° Meza Saindua entzun zazu | 2° Eta bestak begira zatezu |
| Besta igandetan deboki | Manamendurkoak sainduki |
| 3° Bekhatuak kofesa zatezu | 4° Gorphutze Saindua errezeli zazu |
| Utthean behin bederen osoki | Pharkoz bederen humilki |
| 5° Gartha bijiliak begira zatezu | 6° Ortziralean janen ez duzun |
| Garizuma ere osoki | Ez larumbatean haragi. |

Eta nola Jainkoaren eta lagunaren amodioan
baitago Lege guzia, erranen dugun bihotz oner:

Amodiozko Akta;

Ene Jainkoa maite zaitut ene bihotz guztiaren eta

gauza guztiaren gainetik, zeren baitzare guzia onra eta
osoki maithagarria, maite dut halaber ene laguna
ene burua bezala zue amorean gatik:

Galda deragun oraino Jainkoari humilki
barkhamendu, haren Lege Saindua hautsirik
egin ditugun bekhatu guztiak eta har deragun
chede zina guztiaren sakrifikatzeke, ontasunen
bixiaren beraren ere, hura mortalki ofentsa-
tuko dugun baino lehen.

Kofesatzen nartzaiot Jainko Aita bothere guzia
duenari, Maria bethi Bixina Dohatsuari, Mikael
Arkangelu dohatsuari, Joanes Batichta dohatsuari,
Petri eta Paulo Apostolu Saindui, Saindu guztiak eta
zue ene Aita zeren egin baitut sobera bekhatu
gogoz hitzez eta obrak; ene faltak, ene faltak, ene
falta handiak. - Hortarakotz othoitz egiten diot Maria
bethi Bixina Dohatsuari, Mikael Arkangelu Dohatsuari
Joanes Batichta dohatsuari, Petri eta Paulo Apostolu
Saindui, Saindu guztiak eta zue ene Aita egun
derozun othoitz enetzat gure Jainko Jannari.
Jainko bothere guzia duenari urrikal gaitzokola
eta gure bekhatuak barkhatunik hel araz gaitzala
bizitze eternalerat. Halabiz.

Gure bekhatuak barkhamendua, absoluzioa eta
exemzioa eman deragula Jainko bothere guzia
duenari eta misericordiar bethiak. Halabiz.

Kontrizionerko akta.

Ene Jainkoa handirik damu dut zu ofentsa-
turik, zeren guzia onra eta guzia maithagarria
zaren, eta zeren bekhatuak bastio duzun. Barkha
zadarut Jesu Kristoren mercezimenen berthuter
hartzen dut borondate ferren bat zue graziazekin

batean zure gehiago ez ofentzateko eta penitentzia egiteko
Nola ez baiterakegu izan gure bekkhatuen barkha-
menduaren esperantzarik guri gairki egin dauku-
tener egiarri barkhatu gabe hitzeman derogun
Jainko Aita guri urrikalmendutsuari bihotz oner
barkhatzen dugula gure etsaier.

Hunat bilduak gare oraino othoitz egiteko Eliza
Ama Saindu Katholikoarentzat, gure Aita Saindu, gure
Jaun Apherpiku, eta Elizako bertze arizain guzientzat,
Printze giritinoen arteko batasunarentzat, Erresuma
huntako bakhearentzat eta gu gidatzen gaituzten koingudu
guzientzat, Eliza huntako ongiegileentzat, gure ahaide
eta adichkiden, erien, erromesen, alhargunen, unechurtchen
gathiboen, piatanten, emarteki esperantzetan direnen, hitz
bater dela gorphutzeko, dela arimako behar zembetelan
kansitzen diren guzientzat: hortarakotr erranen dugu
guziek elkarrekin: "Gure Aita zereetan zarena *ff.*
Eta Jainkoaren ganik errechkiago ardiesteko galdegiten
dioxkagun gausak emanen dugu ararteko Birjina Maria
Saindua erraiten dugularik Aingernaren Salutarionea
"Agur Maria gaxiaz bethra *ff.*

Esperantzazko Akta.

"Ine Jainkoa esperantza dut sinbeste fermu batekin emanen
"derantazula Jesu-Khristoren merzimenduen berthuter mundu
"hontan zure grazia eta manamenduen jarraikitzen banair
"bertzean zure gloria, zeren hitzeman baituru eta barkare zure
"hitzetan osoki leiala.

Gure eginbidea da oraino othoitz egitea Purgatorioetako
penetan diren arimentzat eta bereziki Eliza huni zerbit
ongi egin diotenentzat, gure ahaide adichkide eta bertze
ongiegile guzientzat: erranen dugu beraz chede hortarak:
De profundis clamavi ad te Dñe; Dñe exaudi vocem meam.

Intrahe aures tue intendentes, in vocem deprecationis mee.
In iniquitates observaveris Dñe: Dñe quis sustinebit

Quia apud te propitiatio est, et propter legem tuam sustinui te Dñe:
Sustinuit anima mea in verbo ejus: speravit anima mea in Dño.
A custodia matutina usque ad noctem; speret Israel in Dño.
Quia apud Dñum misericordia, et copiosa apud eum redemptio.
Et ipse redimet Israel, ex omnibus iniquitatibus ejus.
Requiem eternam dona eis Dñe, et lux perpetua luceat eis
Requiescant in pace - Amen.

Aitaren eta Semearen eta Spiritu Sainduaren izenarean
Halabis.





